

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide, Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, “**Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Defendatzailearen dimisioaren ondorioz herritarrei eman asmo dien erantzunari**” buruz, osoko bilkuran erantzuteko.

ZIOA

Atzoko egunean, abenduaren 22an, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Defentsoria erakundearen buruaren dimisioa ezagutu genuen. Emakundek, horren aurrean, adierazi du ez duela kargua betetzeko asmorik, oraingoz.

Kontuan izanda 2009 urtean irekitako prozedurak 177 izan zirela eta horietatik 40 inguru amaitzear eta ebazpenak sinatzeko zain daudela, beharrezkoa ikusten dugu gobernuak azaltzea zer gertatuko den kasu horiekin, baldin eta ordezkorik jartzen ez bada.

Hori dela eta, hurrengo interpelazioa egiten dio Patxi Lopez Alvarezi:

INTERPELAZIOA

Argi dezala momentu honetan aurkeztutako kexen ondorioz irekita dauden prozedurak, eta bereziki erresoluzioa sinatzeko zain daudenak, nola erantzungo zaien ze egingo duen, kexa horiek aurkeztu dituzten herritarrak babesgabetasunean ez uzteko.

Gasteizen, 2009ko abenduaren 23an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea